

LIZARTZAko TOKIKO AGENDA 21en EKINTZA PLANA (2014-2021)



Lizartza

2013ko urria



AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. EKINTZA PLANAREN XEDEA	1
3. AALBORG +10 KONPROMISOAK	1
4. EKINTZA PLANAREN PRESTAKETA PROZESUA	2
PARTE-HARTZAILEAK	2
METODOLOGIA	3
5. TOKIKO EKINTZA PLANAREN EGITURA	4
6. IKUSPEGIA	5
7. XEDEAK	5
8. LERRO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK	8
1.LE - BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA BULTZATU	16
2.LE - ESKAINTZA SOZIOKULTURAL ANITZA ETA PARTE-HARTZAILEA	27
3.LE - ESPAZIOAREN ERABILERA BALIOAK ARRISKUAN JARRI GABE LURRALDEAREN ETA NATURAREN ORDENAZIO ZEIN KUDEAKETA GARATU	31
4.LE - INGURUAREKIN BAT EGITEN DUEN ETA TOKIKO ENPLEGUA BULTZATZEN DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATUA ETA LEHIAKORRA GARATU	41
5.LE - IRAUNKORTASUN BALOREETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIOA SUSTATZEN DUEN ETA PARTE-HARTZEA ERRAZTEN DUEN UDAL KUDEAKETA GARATU 50	
6.LE - BIZIMODU ARDURATSUAK SUSTATU ETA ONDASUN NATURAL KOMUNEN ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATU.....	58
9. EKINTZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	66



1. SARRERA

Tokiko Agenda 21a martxan jartzeko prozesuan, Lizartzako gaur egungo egoeraren diagnostikoa gauzatu da eta bertan, iraunkortasunak jasotzen dituen alderdiak aztertu dira: errealitate soziala, ekonomikoa eta ingurumenarekin lotutakoa.

Hori horrela izanda, diagnostiko horretan bildutako ondorio nagusietatik abiatuta, Tokiko Ekintza Plana prestatu du Udalak, ahuleziak konpondu eta indarguneak aprobetxatuz, jarraitu nahi den norabiderako epe motz.-erdira garatu beharreko ekintzak zehaztuz.

Bai Diagnostikoa eta baita Ekintza Plana zehaztean, aktiboki hartu du parte Lizartzako Udal Gobernuak, udalerrriaren eta Udalaren errealitatea mahai gainean jarritz. Horrez gain, lizartzatarrek ere parte-hartze handi izan dute. Lanean aritu den talde honek zehaztu eta definitu ditu, datu objetiboetan oinarrituz eta errealitatea ezagutuz, Lizartzaren beharrianak eta baita udalerrriak jarraitu beharko lukeen norabidea.

Beraz, dokumentu honetan, lizartzatarrek zehaztutako ikuspegia lortzeko ekintza sorta jasotzen du, 2014-2021 epean garatuko dena, hain zuzen ere. Ekintza horiek Programa eta Lerro Estrategikoetan sailkatuta daude eta guztiz zehaztuta jasotzen dituzte deskribapena, gauzatzeko epea, lehentasuna, kostua eta finantzaketa.

2. EKINTZA PLANAREN XEDEA

Aurretiaz egin den Diagnostikoan Lizartzako alor ezberdinetan dauden ahuleziak eta beharrak identifikatu dira. Horiez gain, indarguneak zeintzuk diren ere jaso da. Diagnostiko horrek ez luke ezertarako balioko, ondoren, inongo neuririk hartuko ez balitz.

Hori dela eta, Ekintza Plan honek Lizartzaren beharrianen erantzuna emanez, udalerrriak behar duen norabidean kokatzea du helburu.

3. AALBORG +10 KONPROMISOAK

2004ko ekainean, *Aalborg+10 Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Laugarren Konferentzia* egin zen. Han, Europako tokiko 1.000 ordezkari baino gehiagok egunetan eztabaidatu zuten, planetaren iraunkortaseunerako toki-mailan egin daitekeenari buruz.

1994an Danimarkako Aalborg herrian Europako Herri eta Hiri Iraunkorren I. Konferentzia egin eta "Aalborgeko Gutuna" onartu zenetik, dagoeneko ia hogeitaz igaro dira eta, aldi horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerrri inplikatu da pixkanaka iraunkortasunerako tokiko politikak sustatzeko (garapen iraunkorraren alde egingo dutenak).

Aalborgeko hamar konpromiso horiek hamar gai-arlotan daude antolatuta:



1. **Gobernu-erak**
2. **Iraunkortasunerako udal-kudeaketa**
3. **Guztion ondasun naturalak**
4. **Kontsumoa eta bizimodu arduratsua**
5. **Hirien plangintza eta diseinua**
6. **Mugikortasuna hobetu eta zirkulazioa gutxitu**
7. **Osasunerako tokiko ekimena**
8. **Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra**
9. **Berdintasuna eta gizarte-justizia**
10. **Tokikotik globalera**

Aalborg+10 konpromisoak apustu sendoa dira, hiritar eta herritar guztien bizi-kalitate hobea erdiesteko Europako hainbat herri eta hirik egindako apustua, hain zuzen ere. Lizartza ere norabide berean jarri da lanean eta, beraz, Aalborg+10 Konpromisoei jarraituz egituratu du bere Tokiko Agenda 21en Diagnostikoa eta, batez ere, dokumentu honetan jasotzen den Ekintza Plana.

4. EKINTZA PLANAREN PRESTAKETA PROZESUA

Lizartzako teknikari eta politikariek aktiboki hartu dute parte Ekintza Plana zehazterakoan. Ezinbestekoa da politikarien parte hartzea, Ekintza Planak hausnarketa Estrategikoa egitea eta gaikako irismen zabala duten epe ertaineko eta luzeko ekintzak antolatzea eskatzen baitu. Beraien partaidetzak, eztabaida teknikoak izatea eta informatu eta trebatzea suposatu du, planean txertatu beharreko neurriei buruzko erabaki sendoak hartzea ahalbidetuz.

Esfera politikoaz gain, Lizartzako herritarren parte-hartzea ere aktiboa izan da, prozesuan zehar ospatutako bileretan batzorde ezberdinetako ordezkariak egon direlarik.

Hurrengo ataletan zehazten dira nortzuk hartu duten parte eta Ekintza Planaren prestaketan jarraitutako metodologia zein izan den.

PARTE-HARTZAILEAK

Eragile eta pertsona ezberdinek hartu dute parte Ekintza Planaren prestaketan.

- Udalbatza: alkateak eta zinegotziak.
- Lizartzako Udaleko Batzorde ezberdinak, herritarrez osatutakoak.



- Teknikariak: Tokiko Agenda 21 prozesua dinamizatzen dagoen aholkularitza taldea eta udaleko eta beste erakunde batzuetako teknikariak: Tolosaldeko Mankomunitatea, Tolomendi, etab.

METODOLOGIA

Ekintza Planaren zehaztea, Diagnostikoa oinarritzat hartuz, pausos pauso garatu da. Fase nagusiak ondoren zehazten diren dira:

- **1. Pausoa:** Ekintza Planaren denboraldia zehaztu (epea).
- **2. Pausoa:** Ekintza Planaren Ikuspegia zehaztu, Ekintza Planak jarraitu beharreko norabidea zein izango den zehazten duena, hain zuzen ere.
- **3. Pausoa:** Ekintza Planaren garapenarekin lortu nahi diren helburu edo xedeak zein izango diren zehaztu.
- **4. Pausoa:** Lerro Estrategiko eta Programak definitu.
- **5. Pausoa:** Ekintza Planak jasoko dituen ekintzak definitu.
- **6. Pausoa:** Ekintza guztiak karakterizatu.


Esan bezala, teknikari, politikari eta herritarrek hartu dute parte Ekintza Planaren prestaketan eta, ondoko taulan, laburbildu da nola garatu den parte-hartze hori.

Jarduera mota	Parte-hartzaileak	Helburua
1. Saioa	Udalbatza Batzordeak	Gaur egungo Lizartzako egoera aztertu eta etorkizuneko Lizartza irudikatu.
2. Saioa	Udalbatza Batzordeak	Lerro Estrategiko eta Helburuak zehaztu.
3. Saioa	Udalbatza Batzordeak	Ekintza planean jasoko diren ekintzak eta programak zehaztu.
Kontrasteak	Udalbatza Teknikariak	Emailaz edo telefonoz, alderdi ezberdinetarako kontraste eta informazio trukaketak.

5. TOKIKO EKINTZA PLANAREN EGITURA

Tokiko Ekintza Planaren oinarrizko egitura ondoko irudian jasotzen dena da. Bertan ikus daitekeenez, Ekintza Planaren oinarria zehaztutako **ikuspegia** da. Bertatik abiatzen dira planaren ildo edo **lerro estrategikoak** eta baita helburu edo **xedeak** ere.

Lerro estrategikoez tokiko garapen iraunkorraren inguruko helburu estrategikoak adierazten dituzte, planeko ekintza guztien norabidea finkatzen dutenak, hain zuzen ere. Horietatik abiatuz, helburu estrategiko horiek lortzera bideratutako helburu espezifikoek **programa** izena hartzen dute. Programa horiek **ekintza** bat edo gehiago batzen dituzte, horiek, helburu operatiboa osatzen duten tresnak, lanak eta proiektu zehatzak izanik.



Iturria: UDALSAREA 21EN EAE-KO UDALERRIETAKO TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANAK BERRIKUSTEKO GIDA METODOLOGIKOTik abiatuz egina.



6. IKUSPEGIA

Ekintza Plana zehazteko momentuan eta, behin diagnostikoaren emaitzak aurrean izanda, Lizartzak bere udalerria hemendik urte batzuetara nolakoa izatea nahi duten zehaztu da, ideia edo adierazpen horrek zehaztuko baitu jarraitu beharreko norabidea. Nahiz eta bete-betean lortzeko moduko helburua ez izan, Ekintza Plana abian jarrita jarraitu beharreko norabidea zehazten du.

Gauzak horrela, Lizartzak eta lizartzatarrek zehaztutako ikuspegia ondokoa da datozen urteetarako:

2020an Lizartza euskararen presentzia nabarmena duen herria da, maila eta arlo guztietan aktiboki parte hartzen duten eta berdintasunezko eta bidezko gizartea itxuratzen duten pertsonen erata eta bere nortasuna mantentzen lagundu duen ekonomia dinamikoarekin bat datorren natur inguru ederraz hornitua.

7. XEDEAK

Lizartzako 2014-2021 eperako Ekintza Plana, aurretiaz aipatu bezala, Lerro Estrategiko eta Programetan sailkatutako ekintza sortaz dago osatua. Lerro edo ildo estrategiko horiek Lizartzarentzako helburu estrategikoak (kualitatiboak) adierazten dituzte, programek helburu espezifikoak eta ekintzek horiek lortzeko garatu beharreko lanak.

Horiez gain, beharrezko ikusten da plana ezartzen amaitutakoan lortu beharreko helburu kuantitatiboak ere zehaztea, Lizartzako gizartearen eta ingurumenaren egoerari buruzkoak eta, neurri txikiagoan, kudeaketarako tresnei buruzkoak.

Hori horrela izanik, Lizartzako Ekintza Planaren Lerro Estrategikoen **Xede** edo helburuak jasotzen dira jarraian adierazten den taulan.



LERRO ESTRATEGIKOAK	XEDEAK
1.LE - Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzako 2013ko biztanleria mantendu edota handitzea.• Biztanle barrien %100ak Lizartzako ohiturak, baloreak, etab. Ezagutu, onartu, barneratu eta erabiltzea.• Gutxienez 65 urtetik gorako biztanleriaren % 50arekin kontaktatu eta arreta eskaintzea lortu udaleko gizarte zerbitzuen bitartez• Dokumentuen %100ean, bai aldizkari ofizialetan argitaratzen direnak, baita web orrietan aurkitzen diren testuak ere, edota edozein komunikaziotan erabilitakoetan hizkuntzaren erabilera ez sexista erabiltzea lortu.• Laguntza Ekonomikoen beharizanen erantzun maila mantendu.
2.LE - Eskaintza soziokultural anitza eta parte-hartzailea	<ul style="list-style-type: none">• Urtero familia arteko eta generazio arteko erlazioak bultzatuko dituen Aisialdiko eta Denbora Libreko 3 ekintza planifikatu.• Urtean, gutxienez, eskaintza sozio kulturalaren planifikaziorako herritarrekin bilera bat egin.• % 50ean handitu udalaren partaidetzarekin aurrera eramandako euskara, kultura, gazteria, emakumea eta kirolaren inguruan urtero batz beste egiten diren ekintzen kopurua.



LERRO ESTRATEGIKOAK	XEDEAK
3.LE - Espazioaren erabilera balioak arriskuan jarri gabe lurraldearen eta naturaren ordenazio zein kudeaketa garatu	<ul style="list-style-type: none">• Interesekoak diren eremuen % 50 seinaleztatuta egotea lortu.• Bideen %100 inbentariatuta eta ordenatuta egotea lortu eta %80 seinaleak jarrita.• Hutsik dauden etxebizitzien kopurua %50an murriztu• Udalerriko intereseko eremuak inbentariatzeko, gutxienez, azterketa 1 egin.• Udal jabegoko azalera gauzatzeko plantazio berrien hektareen %20 baso autoktono bihurtu.• Udal jabegoko lursailetan 2 hektareatan handitu baso autoktonoaren azalera.• Guztiz edo zati bat leheneratu edo berreskuratu 4 ondare elementutan.• Ez gairitu artifizializatutako %Xeko lurzoru portzentaia.• Erreferentziazko urtearekiko artifizializatutako lurzoru portzentaia mantendu.• Erreferentziazko urtearekiko Babes Bereziko udal azalera mantendu.• Hiri-lurzoruaren erabilera intentsitatea mantendu.
4.LE - Inguruarekin bat egiten duen eta tokiko enplegua bultzatzen duen ekonomia dibertsifikatua eta lehiakorra garatu.	<ul style="list-style-type: none">• Inguruko udalerriekin konparatuz, langabezi tasa 3 puntu portzentual gutxitu.• Herrira industria garbiak edo ingurumen inpaktu baxua duten industriak erakartzeko aukeren analisia egin.• Lizartzara datozen bisitarien kopurua %20 handitu.• Erreferentziazko urtearekiko establezimendu kopurua mantendu.
5.LE - Iraunkortasun baloreetan oinarritutako informazio, sentsibilizazio eta komunikazioa sustatzen duen eta parte-hartzea errazten duen udal kudeaketa garatu.	<ul style="list-style-type: none">• Herritarren parte-hartze bileretako parte-hartzaileen kopurua % 100 handitu.• Urtean, gutxienez TA21aren planifikaziorako, sustapenerako eta jarraipenerako 2 barne bilera egin.• Ingurumen irizpideak txertatuta dituzten pleguak % 50 izatera iritsi.



LERRO ESTRATEGIKOAK	XEDEAK
6.LE - Bizimodu arduratsuak sustatu eta ondasun natural komunen eta hondakinen erabilera eta kudeaketa egokia bultzatu.	<ul style="list-style-type: none">• Edateko uraren banaketa sarearen ur-galerak %80 gutxitu.• Instalazio eta ekipamendu publikoen energia kontsumoa %30 gutxitu.• Argiteria publikoaren energia kontsumoa %40 murriztu kwh/biz/urte.• Hiri-hondakinen %80 gaika biltzea lortu.

8. LERRO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK

Dokumentuaren atal honetan Ekintza Planaren Lerro Estrategiko, Programa eta Ekintzak zehazten dira. Hasteko, ondoko taulan egitura orokorra jasotzen da. Ondoren datozen ataletan, ordea, Ekintza bakoitza karakterizatua jasotzen da, fitxa baten bitartez.



LIZARTZAKO TOKIKO EKINTZA PLANA (2014 - 2021)

1.LE - Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu

1.1.P. Lizartzan biztanleria mantendu, integratu eta bertako ohiturak barneratzeko programa

1.1.1.E. Lizartzako bizilagun berrientzako sentsibilizazio eta formazio ekintzak garatu (euskara, ohiturak, jarduerak, etab.)

1.2.P. Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa

1.2.1.E. Lizartzako gazteen eta adinekoen beharrak aztertu.

1.2.2.E. Lizartzako Osasun Zentrua gaur egungo zerbitzuekin mantendu.

1.2.3.E. Gertu egongo den adinekoentzako Eguneko Zentrua sortzeko beharrak aztertu.

1.2.4.E. Inguruko herriekin komunikazio jarraitua izan zerbitzuak elkarbanatu ahal izateko: adinekoei zuzendutakoak, batez ere.

1.2.5.E. Lizartzako 65 urtetik gorako biztanleriarekin harreman jarraitua izan beraien beharrezanean erantzuna eman ahal izateko.

1.2.6.E. Bakarrik bizi diren adinekoen etxeetan tele-alarma, ke-detektagailu edo antzeko neurriak ezartzeko aukerak aztertu.

1.2.7.E. Zaintzaile gisa diharduten pertsonen inguruko ergoeraren eta beharrezanen diagnostikoa garatu eta ekintzak garatu.

1.3.P. Udal komunikazio eta kudeaketan hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko programa

1.3.1.E. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko udal protokoloa definitu eta udal langileriarri formakuntza eskaini.

1.4.P. Euskararen erabateko erabilera sustatzeko programa

1.4.1.E. Lizartzako Euskara Plana diseinatu.



	1.4.2.E. Kanpotik etorritako gazteengan harreta berezia jarri eta haietzako ekintza bereziak prestatu.
	1.4.3.E. Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko ekintzak garatu.
	1.4.4.E. Lizartzako Euskara Batzordea sortu.
1.5.P. Oinarrizko zerbitzuak mantendu edota hobetzeko programa (eskola eta garraio publiko zerbitzua)	
	1.5.1.E. Egungo beharrianetara egokitutako eskola berria eraikitzea bermatuko duen jarraipena egin Udaletik.
	1.5.2.E. Garraio Publiko zerbitzua mantendu eta beharrianetara egokitzeko dagozkion komunikazioak izan eskumendun erakundearekin.
2.LE - Eskaintza soziokultural anitza eta parte-hartzailea	
2.1.P. Lizartzako eskaintza soziokultural aberatsa, zabala eta anitza garatzeko programa	
	2.1.1.E. Adin ezberdinetara zuzendutako egungo Lizartzako eskaintza soziokulturala aztertu eta urritasunei irtenbidea emateko ekintzak zehaztu.
2.2.P. Lizartzatarren artean jarduera fisikoa bultzatu eta beharrianetara egokitutako kirol eskaintza zabala garatzeko programa	
	2.2.1.E. Kirol eskaintza guztiaren azterketa egin eta urritasunei irtenbidea emateko ekintzak garatu.
	2.2.2.E. Kirol elkarte ezberdinen beharrianak ezagutu eta, ahal den neurrian, eskaerei erantzuna eman udalaz gairik erakundeen diru-laguntza eta eta elkarteen arteko bitartekari lana eginez.
	2.2.3.E. Lizartza zeharkatzen duen Araxes ibaian aisialdi erabilerak ezartzeko aukerak aztertu.
3.LE - Espazioaren erabilera balioak arriskuan jarri gabe lurraldearen eta naturaren ordenazio zein kudeaketa garatu	
3.1.P. Etxebizitza politika eraginkor eta iraunkorra garatzeko programa	
	3.1.1.E. Lizartzako etxe hutsen azterketa garatu: kopurua, egoera, kokalekua, etab.
	3.1.2.E. Lizartzako etxebizitza eskaeraren prospekzio-azterketa egin.



		3.1.3.E. Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuarekin harremanetan jarri etxe hutsei irtenbidea eman ahal izateko egon daitezkeen aukerak edo laguntzak aztertzeke eta, aurrera eraman daitezkeen politikak aurrera eraman.
3.2.P. Natur eremuen kudeaketa jasangarri, arduratsu eta zentzuduna gauzatzeko programa		
		3.2.1.E. Intereseke eremuak mugatu eta seinaleztatu.
		3.2.2.E. Lizartzako auzoak edo interes guneak lotzeko herriko landa-ibilbideak berreskuratu, garbitu eta hobetu.
		3.2.3.E. Goltzur Zelai garbi mantentzeko ekintzak zehaztu eta garatu.
		3.2.4.E. Lizartzako Harrobia kokatzen zen eremua berreskuratu.
		3.2.5.E. Ibai ertzen eta intereseke eremuen berreskurapen eta mantentzea gauzatzeko jarduerak identifikatu, proposatu eta kudeatu.
		3.2.6.E. Flora eta fauna inbaditzaileak identifikatu eta kentzeko neurriak identifikatu, proposatu eta kudeatu.
		3.2.7.E. Udalerriko natur balioen zabalkunde jarduerak garatu.
3.3.P. Baso kudeaketa arduratsua garatzeko programa		
		3.3.1.E. Baso-zoruaren Plan Berezia (edo Herri mendien Antolamendu Plana) eta mendi publikoaren hobekuntza jarduerak idatzi.
4.LE - Inguruarekin bat egiten duen eta tokiko enplegua bultzatzen duen ekonomia dibertsifikatua eta lehiakorra garatu.		
4.1.P. Turismo sektorea indartu eta bultzatzeko programa		
		4.1.1.E. Tolosaldea Garatzenen laguntzarekin, turismo eskaintzaren sustapenerako estrategia prestatu eta ezarri.
		4.1.2.E. Mendi-ibilbideak diseinatu, egokitu eta seinalizatu
		4.1.3.E. Lizartzan ostatu hartu ahal izateko zerbitzu baten bideragarritasuna aztertu.
		4.1.4.E. Añi atsedenekua egoera onean mantendu.
		4.1.5.E. Tolosa eta Lizartza lotuko dituen bidegorria garatu.



4.2.P. Tokiko enplegua sortuko duen ekonomia dibertsifikatua garatzeko programa	
	4.2.1.E. Gipuzkoako Lurren Funtsean parte hartzeko aukerak aztertu.
	4.2.2.E. Herritarren artean eta inguruko herrietan lehen sektorean lan egin nahiko luketenen azterketa egin.
	4.2.3.E. Lizartzako eta eskualdeko biztanleak Lehen Sektoreak bertan duen garrantzia estrategikoaren inguruan sensibilizatu.
	4.2.4.E. Tolosaldea Garatzenekin udalerrira jarduera ekonomikoa erakartzeko estrategia diseinatu eta erakarritako jardueretan lizartzatarrak kontratatzeke erraztasunak eskaini.
	4.2.5.E. Gazte eta enpresen arteko dinamikak antolatu.
	4.2.6.E. Eskualde mailako lan-poltsa osatu eta kudeatzen jarraitu.
5.LE - Iraunkortasun baloreetan oinarritutako informazio, sensibilizazio eta komunikazioa sustatzen duen eta parte-hartzea errazten duen udal kudeaketa garatu	
5.1.P. Udal kudeaketarekin lotutako herri parte-hartzea sustatzeko programa	
	5.1.1.E. Udal kudeaketan parte-hartzea garatzeko udal estrategia diseinatu.
	5.1.2.E. Udal kudeaketaren gora-beheren berri emateko informazio-bilerak antolatu.
	5.1.3.E. Parte-hartze kanal eta bide berrien azterketan aurrera egin.
5.2.P. Tokiko Agenda 21a modu egokian ezartzeko programa	
	5.2.1.E. Udalerriko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren kudeaketa aktiboa gauzatu.
	5.2.2.E. Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearekin bat egiteko aukerak aztertu
	5.2.3.E. Lizartzako Eskolan Iraunkortasun Irizpideak lantzeko programak bultzatu.
5.3.P. Udal kudeaketa arduratsua sustatzeko programa	
	5.3.1.E. Udal administrazioaren ingurumen hobekuntzarako prozedura eta instrukzioak definitu eta prestatu.
	5.3.2.E. Erosketa eta kontratazio arduratsuen irizpideak barneratu udal kudeaketan.



	5.3.3.E. Aalborg+10 konpromisoak aintzakotzat hartu udal jardunean.
	5.3.4.E. Herritarren sentsibilizazio eta erantzukidetasun jarduerak garatu jasangarritasunaren arlo ezberdinetan.
5.4.P. Aldaketa klimatikoaren aurka egin eta egokitzeko programa	
	5.4.1.E. Udal jabegoko lurretan basoberritze proiektuak egiteko aukerak aztertu.
	5.4.2.E. Urtero, eskualdeko beste udalerriekin batera, Lizartzako eta udaleko Berotegi Efektuko Gasen inbentarioa eta karbono arrastoa kalkulatu.
6.LE - Bizimodu arduratsuak sustatu eta ondasun natural komunen eta hondakinen erabilera eta kudeaketa egokia bultzatu	
6.1.P. Ur kudeaketa eta saneamendua hobetzeko programa	
	6.1.1.E. Ur banaketa sarearen puntu kritiko nagusienak (ur galerenak) identifikatu eta horien berritze lanak gauzatzeko plana ezarri.
	6.1.2.E. Lizartzako ur banaketa sarean birgaitze eta hobekuntza jarduerak gauzatu ur galerak gutxitzeko.
	6.1.3.E. Araztegiaren arazo nagusienak identifikatu eta horien egokitze lanak gauzatzeko plana ezarri.
	6.1.4.E. Lizartzako ur-zerbitzuaren kudeaketaren arduraduna zehaztu.
	6.1.5.E. Ura berrerabiltzeko edo euri-ura erabilera ez sanitarioetarako erabiltzeko sistemak ezartzeko aukerak aztertu.
	6.1.6.E. Lizartzako ur ziklo osoa aztertu eta aukera ezberdinen balorazioa garatu.
6.2.P. Udalaren eta Lizartzaren energia kontsumoa murrizteko programa	
	6.2.1.E. EEEren laguntzarekin, argiteria publikoaren Auditorian ondorioztatutako neurriak martxan jarri.
	6.2.2.E. Udal eraikin eta ekipamenduen energia kontsumoak aztertu eta murriztera bideratutako neurriak ezarri.
	6.2.3.E. Iturri berriztagarrietatik datorren energia sortzeko sistemak ezarri udal eraikin eta instalazioetan.
	6.2.4.E. Birgaitze eta energia eraginkortasunerako sektore pribatuari (enpresei edota herritarrei) zuzendutako laguntza ekonomikoen gaineko informazioa bideratu.



	6.3.P. Hiri hondakinen gaikako bilketa hobetzeko programa.
	6.3.1.E. Tolosaldeko Mankomunitatearekin hiri hondakinen gaikako bilketa hobetzeko neurriak zehaztu eta gauzatu.
	6.3.2.E. Hiri hondakinen bilketa eta kudeaketa arautuko duen ordenantza zehaztu eta onartu.



Ekintzen fitxa bakoitzak ondoko informazioa jasotzen du: izenburua, deskribapena, gauzatzeko edo ezartzeko epea, maiztasuna, lehenetasuna, kostua, erantzunkizuna, finantzaketa eta adierazleak.

- **Izenburua:** erreferente sintetikoa, baina ulergarria.
- **Deskribapena:** ekintzaren definizioa eta oinarrizko ezaugarriak, ondoren gauzatzeko eta balioztatzeko gutxieneko elementuak eskaintzen dituena. Ezaugarriak labur azaltzen dira, baina zehaztasunez.
- **Gauzatzeko epea:** ekintza gauzatzeko edo ezartzeko gehieneko epea: motza (1-2 urte), ertaina (3-4 urte) edo luzea (5-8 urte).
- **Maiztasuna:** ekintza gauzatzeko proposatutako maiztasuna.
- **Lehenetasuna:** ekintzak duen lehenetasuna (handia, ertaina edo txikia), ingurumenean, gizartean edo ekonomian duen eraginaren (intentsitatea, gaikako irismena eta onuradun kopurua) arabera; osasunaren gaineko arriskua murrizteko egiten duen ekarpenaren arabera; edo araudiak eskatutakoari erantzuteagatik.
- **Kostua:** ekintza gauzatzeak edo ezartzeak sortuko duen kostua, baita ekintza abian jartzeak eta mantentzeak ekarriko duen kostua ere.
- **Erantzunkizuna:** ekintza gauzatzen edo ezartzen parte hartuko duten erakundeak. Eragile nagusia eta ekintzari babes emango dioten bigarren mailako eragileak bereizten dira.
- **Finantzaketa:** ekintza zer finantzazio programetara aurkez daitekeen identifikatzen da. Horrez gain, ekintza diruz finantzaiz diten erakundeak edo finantza dezaketen erakundeak identifikatzen dira.
- **Adierazleak:** ekintzarekin zuzenean edo zeharka lotutako iraunkortasun adierazleak.

**1.LE - BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA BULTZATU**

1.1.1.Ekintza	Lizartzako bizilagun berrientzako sentsibilizazio eta formazio ekintzak garatu (euskara, ohiturak, jarduerak, etab.)		
1.1.Programa	Lizartzan biztanleria mantendu, integratu eta bertako ohiturak barneratzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	<p>Helburua Lizartzako biztanle berrientzako "harrea-protokoloa" zehaztea izango da. Horrela, udaletxera erroldatzera datozen biztanle berriei egin beharreko harrera zehaztuko da, herriko dinamika, ekintza eta ohituretara erabat integratzeko erraztasunak emanez.</p> <p>Horretarako, ondoko pausoak jarraituko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Biztanle berriei jakinarazi beharreko informazio nagusia identifikatu. • Informazio hori diptiko/triptiko/eskuorri batean jaso. • Erroldatzera datozen biztanleei jakinaraziko informazioa zehaztu. • Harrera protokoloa martxan jarri. <p>Zehaztutako harrera-protokoloa bi urterik behin eguneratuko da, kasuan kasu, dagozkion aldaketak eginez.</p>		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Jarraia
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ezin da aurreikusi
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala	Finantzaketa	Lizartzako Udala
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Editatutako diptiko kopurua • Urte jakin bateko biztanle berrien artean, Harrera protokoloan zehaztutakoa jaso dutenen kopurua. 		



1.2.1.Ekintza	Lizartzako gazteen eta adinekoen beharrak aztertu		
1.2.Programa	Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	<p>Batetik, Lizartzako Udalak udalerriko gazteenen beharrizan eta eskaerak ezagutu eta aztertuko ditu, ahal den neurrian, erantzuna eman ahal izateko. Horretarako modu ezberdinetako bideak zabaldu ahalko ditu: iradokizunetarako postontziak (fisikoak edo web orrian), elkarriketak, elkarteei galderak, etab.</p> <p>Bestalde, 1.2.5.Ekintzarekin erabat lotuta, udalerriko pertsona nagusien beharrizan angusienak ere identifikatuko dira, dauden baliabideetatik abiatuz, ahalik eta erantzun egokiena eman ahal izateko.</p>		
Gauzatzeko epea	Luzea	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Gazteria Batzordea Gizarte Zerbitzuen Batzordea Lizartzako Udala	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Azterketa egiteko kontaktatutako gazte/elkarte kopurua• Azterketa egiteko kontaktatutako adineko pertsona kopurua		



1.2.2.Ekintza	Lizartzako Osasun Zentrua gaur egungo zerbitzuekin mantendu		
1.2.Programa	Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	Lizartzako Udalak gaur egun udalerrian dagoen Osasun Zentruaren egoeraren jarraipen zuzena egingo du eta, aldizka, bai sendagile zein Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin harreman jarraitua izango du zerbitzu horren jarraipena, gutxienez gaur egungo baldintzetan gauzatuko dela bermatzeko.		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Jarraia
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzako Osasun Zentrua urtean zehar irekita egon den ordu kopurua		

1.2.3.Ekintza	Gertu egongo den adinekoentzako Eguneko Zentrua sortzeko beharrak aztertu		
1.2.Programa	Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	Lizartzako Gizarte Zerbitzuak dituzten datuetatik abiatuz Lizartzan, eguneko zentru batera joateko biztanleria potentzialaren azterketa egingo da. Era berean, inguruko udalerriei eta Horrez gain, Lizartzako Gizarte Zerbitzuak Uli Mankomunitatearekin harremanetan jarriko dira bertako eskaera ezagutzeko eta, ondoren, emaitzen arabera, gertu egongo den adinekoentzat eguneko zentruaren benetako beharizanaren gaineko informazio bateratua egongo da.		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzan, eguneko zentru batera joan daitekeen biztanle kopurua• Uli Mankomunitatean eguneko zentru batera joan daitekeen biztanle kopurua		



1.2.4.Ekintza	Inguruko herriekin komunikazio jarraitua izan zerbitzuak elkarbanatu ahal izateko: adinekoei zuzendutakoak, batez ere		
1.2.Programa	Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	Batetik, Lizartzako Udalak Orexako Udalari eta inguruko beste udalerrri batzuei maiztasun konkretu batekin batzartzeko proposamena luzatuko dio (hilabetero, bihilabetero, edo beste maiztasun batekin). Horrela gauzatuz gero, zerbitzu ezberdinen arteko komunikazio kanalak zabaltzea proposatuko da. Adibidez; Uli Mankomunitatea eta Lizartzako Gizarte Zerbitzuak, aipatutako bi horiek Lizartza eta Orexako erizain eta sendagilearekin, etab.		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Bi hilabetero
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala Inguruko udalerrriak	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Urtean, inguruko udalen artean zerbitzuak elkarbanatzeko helburuarekin ospatutako bilera kopurua.• Inguruko udalerrriekin elkarbanatutako zerbitzu kopurua		



1.2.5.Ekintza	Lizartzako 65 urtetik gorako biztanleriarekin harreman jarraitua izan beraien beharriaz erantzuna eman ahal izateko.		
1.2.Programa	Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	<p>Lizartzako Gizarte Zerbitzuek, banaka, Lizartzako 65 urtetik gorako biztanle guztiak batuko da beraien egoera aztertu eta beharriak ondo identifikatzeko, besteak beste, eguneko zentru baten erabilera.</p> <p>Behin identifikatuta, bakoitzari dagokion neurrian, jarraipena egingo zaie, beraien egoera aztertu eta beharriaz aldaketarik egon den ezagutzeko.</p> <p>Beharriaz horiek ezagutzeko, gaur egun Lizartzako Gizarte Zerbitzuek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten baliabideetan oinarrituz erantzuna emango zaie.</p>		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Sei hilabetero
Lehenetsuna	Handia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Gizarte Zerbitzuak	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Jarraipena egiten zaien 65 urtetik goragoko lizartzatarren kopurua• Lizartzako 65 urtetik goragoko biztanle guztietatik jarraipena egiten zaien portzentaia		



1.2.6.Ekintza	Bakarrik bizi diren adinekoen etxeetan tele-alarma, ke-detektagailu edo antzeko neurriak ezartzeko aukerak aztertu.		
1.2.Programa	Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	<p>Alde batetik, Lizartzako Gizarte Zerbitzuek ke detektagailu eta larrialdietarako beste gailu batzuk Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen bitartez ezarri ahal izateko bete beharreko ezaugarriak aztertuko ditu.</p> <p>Beste aldetik, Lizartzan gailu horien beharra dutenen zerrenda bat osatuko da.</p> <p>Behin alderdi bi horiek aztertuta, aipatutako ezaugarriak nortzuk betetzen dituzten zehaztuko da (gailu horiek jarri ahal izateko) eta, bestetuz ez dutenen kasuan (horrela baldin bada), Udalak aurrekontuak eskatuko ditu, kostua bere gain hartu eta bideragarritasun ekonomikoa ezagutzeko.</p>		
Gauzatzeko epea	Luzea	Maiztasuna	Urtero
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ezin da aurreikusi, ezaugarri horiek betetzen ez dituzten pertsona kopuruaren arabera
Erantzunkizuna	Lizartzako Gizarte Zerbitzuak	Finantzaketa	Lizartzako Udala
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzatarren artean ke detektagailu eta larrialdietarako beste gailuen beharrezan duten biztanle portzentaia• Urtero ke detektagailu eta larrialdietarako beste gailu batzuk behar dituztenen artean benetan ezarri zaizkien portzentaia• Urtero ezarritako ke detektagailu eta larrialdietarako beste gailu batzuen kopurua		



1.2.7.Ekintza	Zaintzaile gisa diharduten pertsonen inguruko ergoeraren eta beharriaren diagnostikoa garatu eta ekintzak garatu.		
1.2.Programa	Gizarte Zerbitzuen eta ongizaterako laguntza ekonomikoen erantzun maila mantentzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	Lizartzako Gizarte Zerbitzuen eta Udalaren artean, etxeetan zaintzaile gisa dihardutenen zerrenda osatuko da, eta urtero eguneratu. Horrela, beraiekin batu (banan-banan edo taldeka) eta beraien egoeraren azterketa egingo da, beharriaren nagusienak zeintzuk diren identifikatuz. Ondoren, Gizarte Zerbitzuetako baliabideen bitartez beharriaren horiei erantzunik eman ahal den zehaztuko da eta, ezin denean, Udalaren esku geratuko da erantzuna eman ahal izateko neurriak hartzea.		
Gauzatzeko epea	Luzea	Maiztasuna	Urtero
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ezin da aurreikusi
Erantzunkizuna	Lizartzako Gizarte Zerbitzuak Lizartzako Udala	Finantzaketa	Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak Lizartzako Udala
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Etxean zaintzaile ez profesional moduan dihardutenen kopurua • Etxean zaintzaile ez profesional moduan dihardutenen biztanle portzentaia • Etxean zaintzaile ez profesional moduan dihardutenen kasuan, nolabaiteko laguntza jasotzen dutenen kopurua 		



1.3.1.Ekintza	Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko udal protokoloa definitu eta udal langileriari formakuntza eskaini.		
1.3.Programa	Udal komunikazio eta kudeaketan hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	<p>1.4.4. Ekintzan Euskara Batzordea osatuko dela adierazten da. Euskara Batzorde honek, Lizartzako Udalarekin batera euskararen erabilera ez sexista bermatzeko udal protokolo motza eta zehatza definituko du.</p> <p>Zehaztutako protokolo hori udal langilero guztiaren artean zabalduko da eta, horrela badagokio, formazio ekintza bat antolatuko da. Horrez gain, protokolo hori ikusterraza del Udaletxeko txoko edo iragarki-tauletan jarriko da.</p>		
Gauzatzeko epea	Luzea	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Txikia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala Lizartzako Euskara Batzordea	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzaren erabilera ez-sexista protokoloaren berri izan edo formakuntza jaso duten udal langileriaren portzentaia 		

1.4.1.Ekintza	Lizartzako Euskara Plana diseinatu		
1.4.Programa	Euskararen erabateko erabilera sustatzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	<p>Nahiz eta Euskal Herriko beste udalerrri batzuekin konparatuz Lizartzan euskararen egoera nahiko ona den, azken hilabete eta urteetan beherakada aipagarria somatu dutela diote lizartzatarrek. Hori dela eta, Lizartzako Euskara Plana diseinatuko du 1.4.4. Ekintzan zehaztu bezala, Lizartzan sortzea aurreikusten den Eusbara Batzordeak.</p>		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Handia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Euskara Batzordea	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Lizartzako Euskara Planean jasotako ekintza kopurua Lizartzako Euskara Planean jasotako ekintzetatik ezarri direnen portzentaia 		



1.4.2.Ekintza	Kanpotik etorritako gazteengan harreta berezia jarri eta haientzako ekintza bereziak prestatu		
1.4.Programa	Euskararen erabateko erabilera sustatzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	Lizartzara kanpotik etorritako gazteei zuzendutako ekintza sorta bereziak jarriko dira martxan euskararen erabateko erabilera sustatzeko. Horretarako, Lizartzako Eskolarekin harreman jarraitua izango du Lizartzako Udalak eta eskolarekin batera, urtero, ekintza ezberdinak jarriko ditu martxan.		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Urtero
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ezin da aurreikusi
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala Lizartzako Eskola Euskara Batzordea Gazteria Batzordea	Finantzaketa	Lizartzako Udala
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Urtean Lizartzako gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko aurrera eramandako ekintza kopurua		

1.4.3.Ekintza	Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko ekintzak garatu		
1.4.Programa	Euskararen erabateko erabilera sustatzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	1.4.1. Ekintzan jasota dagoen bezala, Lizartzako Euskara Plana zehaztuko da eta, bertan, gazteenganako ekintzez gain, kanpotik etorritako gurasoen artean euskararen erabilera bultzatzeko ekintzak jasoko dira.		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Urtero
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ezin da aurreikusi
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala Euskara Batzordea	Finantzaketa	Lizartzako Udala
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Urtean kanpotik etorritako gurasoekin euskararen erabilera bultzatzeko aurrera eramandako ekintza kopurua		



1.4.4.Ekintza	Lizartzako Euskara Batzordea sortu		
1.4.Programa	Euskararen erabateko erabilera sustatzeko programa		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	Lizartzako euskararen egoera ona bermatu eta euskararen erabateko erabilera bultzatzeko helburua izango du osatuko den Euskara Batzordeak. Euskara Batzordea, Lizartzako gainerako batzordeak bezala, herritarrez osatua egongo da eta, besteak beste, Lizartzako Euskara Plana bultzatzeko ardura izango du.		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Handia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzako Euskara Batzordea osatzen duten kide kopurua• Lizartzako Euskara Batzordeak urtero ospatzen duen bilera kopurua		

1.5.1.Ekintza	Egungo beharrianetara egokitutako eskola berria eraikitzea bermatuko duen jarraipena egin Udaletik		
1.5.Programa	Oinarrizko zerbitzuak mantendu edota hobetzeko programa (eskola eta garraio publiko zerbitzua)		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	Lizartzako Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin harreman jarraitua izango du eskola berriaren eraikuntza bermatzeko. Horretarako, aldizkako batzarrak ospatuko dira, edota telefonoz edo email bidezko kontaktuak mantenduko dira.		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Jarraia
Lehentasuna	Handia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Hirigintza Batzordea Lizartzako Udaleko Hirigintza Sailsa	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzako Udalak eskola berriaren jarraipenerako Hezkuntza Sailarekin urtero izandako bilera kopurua		



1.5.2.Ekintza	Garraio Publiko zerbitzua mantendu eta beharrianetara egokitzeko dagozkion komunikazioak izan eskumendun erakundearekin		
1.5.Programa	Oinarrizko zerbitzuak mantendu edota hobetzeko programa (eskola eta garraio publiko zerbitzua)		
Biztanleriaren ongizatea eta gizarteratzea bultzatu			1.LE
Deskribapena	<p>Lizartzari zerbitzu ematen dion garraio zerbitzua, autobus zerbitzu nagusia, Tolosaldea Garatzenen eskumenekoa da. Duela gutxi parte-hartze prozesu baten ondorioz zerbitzua hobetzeko zehaztutako neurriak jarriko dira martxan.</p> <p>Dena den, Lizartzako Udalak zerbitzuaren erabilgarritasuna eta balorazioa egingo ditu eta, hobekuntzarako proposamenak identifikatzen badira, Tolosaldea Garatzeneri helaraziko zaizkio.</p>		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Urtero
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Lizartzako Udala	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzari zerbitzua ematen dion garraio publikoaren inguruan uirtero egindako balorazio kopurua• Tolosaldea Garatzeneri, garraio zerbitzua hobetzeko asmotan helarazitako proposamen kopurua		

**2.LE - ESKAINTZA SOZIOKULTURAL ANITZA ETA PARTE-HARTZAILEA**

2.1.1.Ekintza	Adin ezberdinetara zuzendutako egungo Lizartzako eskaintza soziokulturala aztertu eta urritasunei irtenbidea emateko ekintzak zehaztu		
2.1.Programa	Lizartzako eskaintza soziokultural aberatsa, zabala eta anitza garatzeko programa		
Eskaintza soziokultural anitza eta parte-hartzailea			2.LE
Deskribapena	<p>Gaur egun Lizartzan dagoen eskaintza soziokulturala aztertuko da, gutxienez ondoko alderdiei erreparatuz: eskaintza mota, nori zuzendua dagoen, ordutegia, garatzen den lekua, etab.</p> <p>Hori egin ostean, urritasun edo ahuleziak zeintzuk diren ondorioztatuko dira eta, urritasun horiei soluzioa emateko aukerak landu eta ezarriko dira.</p> <p>Era berean, kultur dinamizatzaile bat kontratatzeke aukerak aztertuko dira.</p>		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Kultura Batzordea Lizartzako Udala	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Urtean egindako ekintza soziokultural kopurua• Urtero ekintza soziokulturaletan parte-hartu duten lizartzatarren kopurua		



2.2.1.Ekintza	Kirol eskaintza guztiaren azterketa egin eta urritasunei irtenbidea emateko ekintzak garatu		
2.2.Programa	Lizartzatarren artean jarduera fisikoa bultzatu eta beharrianetara egokitutako kirol eskaintza zabala garatzeko programa		
Eskaintza soziokultural anitza eta parte-hartzailea			2.LE
Deskribapena	Eskaintza soziokulturalaren jkasuan bezala, 2.1.1. Ekintza, gaur egun Lizartzan dagoen kirol eskaintza aztertuko da, gutxienez, ondoko alderdiei erreparatuz: kirol mota, nori zuzendua dagoen, ordutegia, garatzen den lekua, etab. Hori egin ostean, urritasun edo ahuleziak zeintzuk diren ondorioztatuko dira eta, urritasun horiei soluzioa emateko aukerak landu eta ezarriko dira.		
Gauzatzeko epea	Luzea	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Kirol Batzordea Lizartzako Udala	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Urtean egindako kirol ekintza kopurua• Urtero kirol ekintzetan parte-hartu duten lizartzatarren kopurua		



2.2.2.Ekintza	Kirol elkarte ezberdinen beharrianak ezagutu eta, ahal den neurrian, eskaerei erantzuna eman udalaz gaindiko erakundeen diru-laguntza eta eta elkarteen arteko bitartekari lana eginez		
2.2.Programa	Lizartzatarren artean jarduera fisikoa bultzatu eta beharrianetara egokitutako kirol eskaintza zabala garatzeko programa		
Eskaintza soziokultural anitza eta parte-hartzailea			2.LE
Deskribapena	Lizartzako Kirol Batzordea udalerrian dauden Kirol Elkarte guztiekin batzartuko da, beraien beharrian nagusienak zeintzuk diren identifikatzeko. Horren ostean, Batzordeak beharrian eta eskaera horiei lehentasunak ezarriko dizkie. Jarraian, ekintza horietarako egon daitezkeen laguntzak aztertuko dira eta, laguntzaren bat egonez gero, eta udal ekipamenduren batekin lotuta badago ekintza, Lizartzako Udalari aurkeztuko dio proiektua eta posible izan daitekeen finantziazio-bidea.		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ezin da aurreikusi
Erantzunkizuna	Kirol Batzordea Lizartzako Udala	Finantzaketa	Udalaz gaindiko erakundea Lizartzako Udala
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Kirol elkarteen beharrianetatik abiatuz, urtero horiei konponbidea emateko gauzatutako ekintza kopurua		



2.2.3.Ekintza	Lizartza zeharkatzen duen Araxes ibaian aisialdi erabilerak ezartzeko aukerak aztertu		
2.2.Programa	Lizartzatarren artean jarduera fisikoa bultzatu eta beharrianetara egokitutako kirol eskaintza zabala garatzeko programa		
Eskaintza soziokultural anitza eta parte-hartzailea			2.LE
Deskribapena	<p>Lizartza zehazkatzen duen Araxes ibaian aisialdi erabilerak ezartzeko aukerak aztertuko ditu Udalak. Gaur egun bainu-hartzeko erabiltzen dute gazte askok, baina ibaia eta bere ingurua (Lizartzan, behintzat) ez dago erabilerara horretarako egokitu edo prestatua (gaur egun errepede ondoan egoten dira bainua hartzera doazen gazteak).</p> <p>Horretarako, Lizartzako Udalak eta herriak, lehenik eta behin, ibai horretan zer aisialdi erabilerara izatea nahiko lukeen aztertuko du, eta erabilerara horiek garrantzi edo lehentasunaren arabera antolatuko ditu.</p> <p>Jarraian, Araxes ibaia babestutako naturgunea izanik, eta horrez gain, ibaia izanik, ondoko erakundeekin jarriko da harremanetan Lizartzako Udala: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin, aipatutako erabilerak gauzatzeko egon daitezkeen aukera edo eragozpenak identifikatzeko.</p>		
Gauzatzeko epea	Luzea	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Txikia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Hirigintza Batzordea Kirol Batzordea Lizartzako Udala	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Araxes ibaian aisialdi erabilerak ezartzeko aukerak aztertze urtero ospatutako bilera kopurua 		



3.LE - ESPAZIOAREN ERABILERA BALIOAK ARRISKUAN JARRI GABE LURRALDEAREN ETA NATURAREN ORDENAZIO ZEIN KUDEAKETA GARATU

3.1.1.Ekintza	Lizartzako etxe hutsen azterketa garatu: kopurua, egoera, kokalekua, etab.		
3.1.Programa	Etxebizitza politika eraginkor eta iraunkorra garatzeko programa		
Espazioaren erabilera balioak arriskuan jarri gabe lurraldearen eta naturaren ordenazio zein kudeaketa garatu			3.LE
Deskribapena	Lizartzako etxe hutsak identifikatuko dira, gutxienez, ondoko informazioa jasoz: kokapena (helbidea), azalera, etxebizitzaren egoera (ona edo berriztu beharra), eraikinaren egoera, etab. Era horretan, Lizartzako etxe hutsen inbentarioa izango da, konponbideak bilatzeko ezinbesteko tresna izango dena.		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Handia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Hirigintza Batzordea Lizartzako Udaleko Hirigintza Saila	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Lizartzako etxe huts kopurua 		

3.1.2.Ekintza	Lizartzako etxebizitza eskaeraren prospekzio-azterketa egin		
3.1.Programa	Etxebizitza politika eraginkor eta iraunkorra garatzeko programa		
Espazioaren erabilera balioak arriskuan jarri gabe lurraldearen eta naturaren ordenazio zein kudeaketa garatu			3.LE
Deskribapena	Etxebizitza eskatzaileen udal erregistroa sortuko da, bertan Lizartzako etxebizitza eskaera potentziala identifikatzeko. Erregistro hori sortzeaz gain, denboran zehar mantendu egingo da. Era berean, erregistro horren sorreraren berri emango da udalerrian eta eskualde mailan, Udalak normalean erabiltzen dituen komunikabideen bidez.		
Gauzatzeko epea	Ertaina	Maiztasuna	Jarraia
Lehentasuna	Ertaina	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Hirigintza Batzordea Lizartzako Udaleko Hirigintza Saila	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Lizartzan etxebizitza eskatzaileen kopurua urteko 		



3.1.3.Ekintza	Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuarekin harremanetan jarri etxe hutsei irtenbidea eman ahal izateko egon daitezkeen aukerak edo laguntzak aztertzeke eta, aurrera eraman daitezkeen politikak aurrera eraman		
3.1.Programa	Etxebizitza politika eraginkor eta iraunkorra garatzeko programa		
Espazioaren erabilera balioak arriskuan jarri gabe lurraldearen eta naturaren ordenazio zein kudeaketa garatu			3.LE
Deskribapena	3.1.1. Ekintzan adierazitako etxe hutsen inbentarioa egin ostean, Lizartzako Udala Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuarekin jarriko da harremanetan etxe hutsentzako egon daitezkeen irtenbideak ezagutzeko. Aukerak ezagutu ostean, Lizartzako Udalak eta Hirigintza Batzordeak erabaki egin beharko du dauden aukeretatik (aukerarik egonez gero) zein erabili nahi edo ahal duten eta, bide horretan aurrera egiteko egutegi eta lan programa ezarriko dira.		
Gauzatzeko epea	Motza	Maiztasuna	Jarraia
Lehentasuna	Handia	Kostua	Ez da aurreikusten
Erantzunkizuna	Hirigintza Batzordea Lizartzako Udaleko Hirigintza Saila	Finantzaketa	-
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Lizartzako etxe huts kopurua• Lizartzako etxe huts kopurua murriztera bideratuta ospatutako bilera kopurua		



3.2.1.Ekintza	Intereseko eremuak mugatu eta seinaleztatu		
3.2.Programa	Natur eremuen kudeaketa jasangarri, arduratsu eta zentzuduna gauatzeko programa		
Espazioaren erabilera balioak arriskuan jarri gabe lurraldearen eta naturaren ordenazio zein kudeaketa garatu			3.LE
Deskribapena	<p>Lizartzako udalerrian interesekoak diren elementu natural eta kulturalak identifikatuko dira.</p> <p>Behin eremuak identifikatuta izanik, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean dagokion izendapen edo babesa eskainiz horrela jasota dauden aztertuko da. Horrela ez baldin bada, Plan Orokorrean aldaketa egitea merezi duen baloratuko da.</p> <p>Horrez gain, eremu horiek seinalizatzeko egon daitezkeen laguntzak ezagutzeko, udalaz gaindiko erakunde batekin jarriko da harremanetan udala, Tolomendi eta Tolosaldea Garatzenekin, hain zuzen ere. Horren arrazoi nagusia, eskualdeko beste udalerrri batzuk lan bera gauzatzen badabilta proiektu bateratua egitea izango litzateke: kostuak aurreztuz.</p> <p>Orain arteko diru-laguntzen deialdiak ikusita, posibleena Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtero Tokiko Agenda 21eko ekintzak garatzeko zabaltzen duen diru-laguntzen deialdian proiektua aurkeztea izango da.</p>		
Gauatzeko epea	Luzea	Maiztasuna	Ez da aldizkakoa
Lehentasuna	Txikia	Kostua	Ezin da aurreikusi
Erantzunkizuna	Hirigintza Batzordea Lizartzako Udaleko Hirigintza Saila	Finantzaketa	Gipuzkoako Foru Aldundia
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Lizartzan interes natural edo kulturala duten identifikatutako eremu kopurua Lizartzan identifikatutako guneeetatik seinalizazioa dutenen portzentaia 		



3.2.2.Ekintza	Lizartzako auzoak edo interes guneak lotzeko herriko landa-ibilbideak berreskuratu, garbitu eta hobetu		
3.2.Programa	Natur eremuen kudeaketa jasangarri, arduratsu eta zentzuduna gauatzeko programa		
Espazioaren erabilera balioak arriskuan jarri gabe lurraldearen eta naturaren ordenazio zein kudeaketa garatu			3.LE
